

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure kanpinak ondo funtziona dezan erabiliko ditugun baliabideak 4 taldetan sailka ditzakegu: fisikoak, intelektualak, ekonomikoak eta gizatiarrak.

FISIKOAK

- 5000 metro/karratu baino handiagoa den lursail bat.
- Bungalowak, tipiak...
- Tabernarako behar den materiala: mahiak, ahulkiak, edaria, janaria, sukaldea, sukalderako elementuak...
- Kontainerrak.
- Harrera-lekuko eta tabernako eta dendako eraikuntza...
- Pistina, hamakak, itzalkinak...

INTELEKTUALAK

- Trebetasun komertzialak bezeroak lortu eta mantendu ahal izateko.
- Gure kanpina Euskal Herriko Kanpinen zerrendan sartuko dugu.
- Kanpinen funtzionamenduaren jakinean izango gara.
- Gure bezeroak izan daitezkeenei kanpinaren ekintza eta berrikuntzak helaraziko dizkiegu.

EKONOMIKOAK

- Hasiera batean, lauok 20.000 euroko inbertsioa egingo dugu hau aurrera eramateko.
- Hori nahikoa ez denez, mailegu bat eskjatuko diogu Kutxabanki negozio bat abiarazteak sortzen dituen gastuei aurre egiteko.
- Gaztempresaren diru-laguntza gazteentzako bideratuta dagoen negozioa abian jartzeagatik.
- AFA finantza-laguntza jasoko dugu, mikroenpresa edo partikularra delako. (Inbertsio hautagarriaren zenbatekoak gutxienez 15.000 eurokoa izan behar da)

GIZATIARRAK

- Alde batetik, Amaier diruaren kontuez arduratuko da. Gure gastu eta irabaziekin arituko da lanean, hau da, aspektu ekonomikoan.
- Ainara harrera lanetan arituko da, gure bezeroekin harremanetan egoten, presentzialki eta telefono bidez.
- Nahia diseinuaz, dekorazioaz, mantenimenduaz, sare sozialetako publizitateaz, antolatuko diren ekintzetaz... arduratuko da, hau da, sormen-alderdian.
- Azkenik, Eider beste enprekin eta, oro har, kanpinerako beharrezko zerbitzuak lortzeko hitz egin behar direnekin hitz egiteaz arduratuko da, kanpinak beharrezko zerbitzu guztiak izan ditzan.